



Bidania-Goiatzen 2013ko urriaren 3an

Kaixo lagunok!!

Bidania-Goiatzekook, 2014ko Eskola Txikien festaren barnean, datorren ostiralerako emanaldi bat antolatu dugu Azpeitiko Soreasu antzokian. Bertan **“Ez gara Palestinaz ari”** emanaldi berezia eskainiko dute Unai Muñoa, Imanol Kamio, Aitor Atxega eta Ander Lizarralde. Ikuskizun honek 75 minutu inguruko iraupena izango du eta bertsoa, antzerkia, poesía, musika, ikus-entzunezko animazioak... biltzen ditu.

Emanaldi hau, **Azpeitiko Soreasu antzokian izango da, urriak 11, ostirala, gaueko 22:30ean. Sarrerak 5 eurotan egongo dira salgai egunean bertan 21:00etatik aurrera Soreasun bertan.** Aldez aurretik erosi nahi dituenak, www.barrabarra.eu atarian sarrerak online izango ditu, urriaren 10era arte.

Emanaldi hau Bidania-Goiatzeko 2014ko Eskola Txikietako festaren antolatzaileok antolatu dugunez, bertan ateratzen den irabazia, 2014ko ekainaren 8an bertan ospatuko den festa finantzatzeko erabiliko dugu. Beraz, denok animatzen zaituztegu emanaldi hori ikustera.

Laster arte!

